



2018rako galarazi nahi ditu plastikozko poltsak Espainiako Gobernuak

Espainiako Gobernuak prestatu du merkataritza lokaletan poltsak doan banatzeko debekua. Gainera, gaur egun denda batzuetan ordaintzen diren poltsak garestitu nahi ditu.

Hala jaso du aipatutako Ministerioak, prestatzen ari den Errege Dekretuan, plastikozko poltsa arinen kontsumoa mugatzen duen europar zuzentaraua dela eta.

Dekretuaren proiektuak dio 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera galarazita egongo dela kontsumitzaileei plastikozko poltsak ematea, produktu eta ondasun saltokietan.

Era berean, merkataritza lokaletan poltsak kobratu beharko dituzte, eta salneurria 5 eta 30 zentimo artekoa izango da.

Edonola ere, salbuespen izango dira eta, hortaz, poltsak eman ahal izango dituzte, higiene arrazoiengatik edo ontziratu gabe saltzen diren elikagaien kasuan poltsak ematen dituztenek.

Ebakuntza kopurua gora, baina itxaron zerrendek berdin jarraitzen dute

Osakidetzak egindako ebakuntza kopuruak gora egin du; %4, zehazki. 2016an, 122.791 kirurgia operazio egin zituzten. Kirurgiako itxaron zerrendak behera egin du: 17.343, 2015ean baino 382 gutxiago. Hala ere, itxaron zerrendan egin beharreko batez besteko denborak ez du ia aldaketarik jasan. 50,2 egun pasatu behar ditu eriak kirurgia operazioaren aurretik —2015ean, 50,6—.

Normalean gertatzen den bezala, traumatologia, oftalmologia eta dermatologia dira jarduerarik gehien duten espezialitateak, eta 3 horien artean egiten dute itxarote-zerrendan dauden pazienteen % 45.


Bestalde, Oskidetzako ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuek ia milioi bat pertsona artatu dituzte (941.662) 2016an, eta ia hiru erietatik bik patologia arina edo oso arina zuen.

Horrez gain, balantzean jaso duten beste datu baten arabera, ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuak 2015ean baino ia 30.000 lagun gehiago artatu zituen. Gorakada, patologia arinekin joan ziren pertsona kopuruari egotzi diote.

Guztira, artatu zituzten 617.812 pertsonak gaixotasun arina edo oso arina zuten eta, gainerako 323.850ek, aldiz, larria edo oso larria. Azken kopuru hori egonkor mantendu da 2015eko datuekin alderatuta.



64 urteko emakume batek bikiak izan ditu



64 urteko emakume batek bikiak izan ditu Burgoseko ospitalean, *in vitro* ernalketaren bidez. Ernalketa prozesua aurrera eramateko AEBra joan zen.

Burgoseko ospitaleak jakinarazi duenez, ohiz kanpoko kasua da Espainian, izan ere, 58 urte baino gehiago bete dituzten emakumeen kasuan oso zaila da *in vitro* teknikaren bidez ernaltzea.

Burgosen bizi den emakume hori bigarren aldiz izan da ama, duela sei urte beste ume bat izan baitzuen teknika bera erabilita. Dena dela, Gizarte Zerbitzuak bere gain hartu zuen zaintzaren ardura, besteak beste, bazterketa, janzkera desegokia eta higiene falta leporatuta.



Ertzaintzak bost bahiketa birtualen berri izan du

Asteazken arratsaldean, Ertzaintzak bost bahiketa birtualen berri izan zuen. Biktima guztiek antzeko dei anonimoak jaso zituzten, gertuko pertsona bat bahitu dutela esanez eta aske uzteko dirua eskatuz. Ertzaintzaren arabera, azkenaldian mota horretako deiak ugari dira.

Bahiketa faltsuen dei anonimoak Bizkaian (lau kasu) eta Gipuzkoan (kasu bakarra) izan dira. Aurreko beste zenbaitetan gertatu den bezala, denbora tarte txiki batean jaso ziren. Arrazoi horregatik, adi egoteko aholkatu du Ertzaintzak.

Jarduteko modua oso antzekoa izan da kasu guztietan: biktimek dei anonimo bat jaso dute, seme-alaba bahitu dutela esanez eta pertsona hori askatzeko dirua eskatuz. Horietako dei batean, gaizkileak 5.000 euro emateko eskatu dio biktimari, eta hala egin ezean damutu egingo dela ziurtatu dio.

Gertatutakoa argitzeko Ertzaintzak ikerketa abiatu du, eta ustezko bahitzaileek deiak Hego Amerikatik egin dituztela baieztatu du.

Bahiketa birtualei aurre egiteko Ertzaintzak aholku batzuk eman ditu. Ildo horretatik, oso garrantzitsua da lasai egotea eta deia moztu bezain laster gertuko pertsona hori (semea, alaba, laguna...) non dagoen egiaztatzea.

Ertzaintzak azaldu duenez, sekula ez da ordainketarik egin behar eta segituan eman behar da gertatutakoaren berri, ahal dela 112 telefonora deituz. Azkenik, gaizkileak identifikatzeko eta hori ez errepikatzeke salaketa jartzea aholkatu du Ertzaintzak.



Athleticen 241 elastiko faltsu atzeman dituzte hiru maletatan

Athleticen 241 elastiko faltsu atzeman zituzten hiru maletatan ezkatututa egindako operazio batean, Bilboko Aireportuan

Urtarrilaren 20an konfiskatu zituzten faltsifikazioak. Egun hartan, Dakarretik (Senegal) etorritako bidaiari baten ekipajeari susmo txarra hartu zioten agenteek.

Maletak zabaldu zituenean, elastiko sorta topatu zuen Guardia Zibilak, "plastikozko poltsetan sartuta, eta Athletic Club taldearen elastiko ofizialek dituzten moduko ikurrak eta etiketak zituzten".

Oso ondo egindako faltsifikazioak ziren, eta "elastiko ofizialen antz handia zuten". Internet bidez saltzen zituztela uste dute, eta 14.500 euroko balioa izango lukete.

Sei urteko zigorra Urdangarinentzat

Zortzi hilabeteko deliberazioen eta sei urteko instrukzioaren ondotik, gaur jakinarazi du Palmako Probintzia Auzitegiak. Iñaki Urdangarini sei urte eta hiru hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio epaimahaiak. Horrez gain, 512.553,68 euroko isuna ordaindu beharko du. Cristina infanta absolbitu dute epaileek, 265.000 euroko isuna ordain beharko badu ere. Epaia —ez da irmoa, aldeek helegitea aurkez baitezakete— aho batez onartu dute hiru magistratuek.

Diego Torres Urdangarinen bazkideari zortzi urte eta erdiko zigorra ezarri diote bost delitu egotzita. Epaimahaiak ezarritako zigorrik handiena da.

Jaume Matas Balear Uharteetako presidente ohi eta Ingurumen ministro izandakoak hiru urte eta zortzi hilabeteko zigorra bete beharko du.

Ikurrinaren emotikonoa?



Noizean behin emotikono berriak agertzen dira. Kolore guztietako aurpegiak, animalia gehiago, lanpostu desberdinak irudikatzen dituzten pertsonen irudiak... Hala ere, gehiago behar dira. Edo hori da, behintzat, Astigarragako gazte batek pentsatzen duena.

Harkaitz Galarragak Change.org atariaren bidez, sinadura bilketa bat antolatu du. Bere helburua oso sinplea da: Ikurrinaren emotikonoa sortzea. Eskaera honekin 15.000 lagunek bat egin dute. WhatsAppi zuzendutako ekintza hau otsailaren 9an hasi zen.

Hasiera batean, estatuetako banderak baino ez ziren sortzen. Hori bai, azken gaurkotzearekin Mendebaldeko Sahara eta Galeseko banderak sartu ziren. Beraz, posible liteke Euskadik laster bere emotikonoa izatea.

Eguraldia nahasia

Larunbatean, goizean giro eguzkitsua izango dugu, baina arratsaldean hodeiak iristen joango dira eta zaparrada batzuk utziko dituzte. **Igandean**, hodei ugari izango ditugu baina euri gehiegirik ez.

